

Ospakizun eta lehiaketak

UDABERRIAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA



http://futurum.eun.org/eun.org2/eun/Include_to_content/spring/march21index/index-es-724.html

(gaztelaniaz: informazioa, berriak, harremanak, foroak, baliabideak.)



<http://www.eun.org/portal/index-en.cfm>

(Projects izenekoan bilatu behar da)



EDUCACION

<http://aplicaciones.mec.es/programas-europeos/jsp/plantilla.jsp?id=primeur>

(azalpen orokorra gaztelaniaz)

Europar Konbentzioko zenbait partaidek sortu, Europako Batzordeak finantzatu eta egun European School project-ek eta bazkide nazionalak sostengatutako *Udaberriaren Eguna Europan* honek haboroz haboro arrakasta handia du Europako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. 2004. urtean, esaterako, 5000 ikastetxek baino gehiagok parte hartu zuten. Ekimen honen asmoa da Europaren inguruko ezagutza eta eztabaida zabaltzea, herri ezberdinetako ikasleen artean etorkizuneko Europa definitzen laguntzeko.

Horretarako, **Udaberriaren Eguna Europan** gunean (en, fr, de) urteko gaiari buruzko baliabideak eta informazioa eskaintzen da. Ekimen honen jardueretan parte hartzen duen ikastetxeari ziurtagiria ematen diote Europako agintariek. Hori lortzeko *Udaberriaren Eguna Europan* web-orrian izena eman eta egindakoaren berri ematea besterik ez dago. Parte hartzeko araurik ez dagoenez, ikastetxe bakoitzak erabakitzen du nola esku hartu. Europaren inguruan burura dakizkigukeen ekintza guztiak baliagarriak dira, baita xumeenak ere. Bestaldetik, ospakizun honen barnean, Europa mailako arduradun edota pertsona ospetsuak geletara itzultzen dira, bertako ikasleei euren ikuspuntuak azaltzeko eta eztabaidatzeko.

Honakoak ere aipatzekoak dira webgune horretan:

Europar balioen gaineko proiektu irekia. Bertako mintzagaiak bakea, demokrazia, berdintasuna eta tolerantzia ditugu. Horrez gainera, Europako herrialdeak ezagutzeko ataza bat eta hizkuntzen oztoporik izan gabe burutzen den ez ahozko jarduera bat. Europari buruzko ezagutzarako **baliabideak**. Bilatzaile batek gaika, irakasgaika eta abar bilatzen ditu errekurtso horiek. Gainera, **web Quest**, eta erantzun anitzeko **galdeketa** (Pruebas/Quizz) motako materiala dago, baita Balio Europarren proiektua ere.

Horretaz gain:

★ **Together in Europe** proiektua. Haren helbidean partaideek utzitako materiala eskura dezakezu adibide gisa eta zurea bidali bertan jar dezaten. Gaiak honako hauek dira: Artea, kultura, ohiturak/errezetak eta elikatze ohiturak /ekimen berdeak/gertakizun historikoak/eraikuntzak eta arkitektura/bereizitasun geografikoak/zeure ideia. Ekarpinak oso interesgarriak eta erabilgarriak dira.



http://futurum2004.eun.org/ww/en/pub/futurum2004/together_europe.htm

★ **Spring day** / Udaberri egunaren Europako orria (de, fr, en)



<http://futurum2004.eun.org/ww/en/pub/futurum2004/index.htm>
(2004ko jarduerak)

http://futurum.eun.org/eun.org2/eun/index_spring.cfm (orri nagusia)

★ Espainiarako aholkulari pedagogikoaren orrian informazioa gaztelaniaz eskura daiteke:



<http://futurum2004.eun.org/ww/en/pub/futurum2004/country/es.cfm>

gida laburra gaztelaniaz



¿Qué es la Primavera de Europa?

http://www.eun.org/eun.org2/eun/futurum2004/guides/guide_es.doc

gida sakona gaztelaniaz



<http://www.xtec.es/~nsalvado/spring/>

EURO-SCOLA LEHIAKETA



http://www.euro-scola.com/Euro-Scola_2004/index.asp?lengua=0

Interneten bidez urtero jokatzen den lehiaketa honetan Europako Konstituzioari eta Europako Hauteskundearen inguruko ezagutza eta abileziari buruzko probak gaintu behar dituzte talde jokalariek.

Jokalariak:

DBHko bigarren ziklo, Batxilergo eta Lanbide Heziketako 13 eta 18 urte bitarteko ikasleek osatutako 10 laguneko taldeak. Irakasle bat izango dute arduraduna. Ikastetxe bakoitzeko nahi adina talde aurkez daitezke baina ikasle bakoitza talde bakar bateko partaidea izan daiteke soilik.

Izen ematea:

Doakoa da. Euro-scolako atarian bertan. Hor datak ere zehaztuta daude, baita jokoaren garapeneko aldiak ere.

Lehiaketa bera:

1. fasea: <i>Abendutik otsaila aldera</i>	izen ematea	
2. fasea: <i>Otsaila eta martxo</i>	Lehiaketa	1. etapa: 9 proba taldeka 5 proba banaka azken proba
		2. etapa: 7 proba taldeka 5 proba banaka azken proba
		3. etapa: 5 proba taldeka 5 proba banaka azken proba
3. fasea: <i>Martxoaren amaieran</i>	azken proba	

Oharra: Taula honetako datuak indikatiboak dira; 2004ko oinarrietatik hartuta daude. Indarrean daudenak jakiteko Euro-scolaren webgunera jo behar da.

Taldeek EBko leku adierazgarriak bisitatuko dituzte eta han taldekako proba bat gainditu beharko dute. Etaparen arabera leku kopurua aldatzen denez, proben kopurua ez da berdina izaten.

Hona hemen, adibide gisa, 2004ko deialdian taldeka ebatzi behar ziren proba motak:

▪ Euro-eskaner	irudi asmakizuna
▪ Euro-argazkiak	irudi asmakizuna
▪ Euro-galderak	10 galdera (quiz)
▪ Euro-urkatua	hitza edo esaldia asmatu
▪ Euro- egiazkoa edo faltsua	egia ala gezurra
▪ Euro-asoziazioa	kontzeptua eta gaia parekatzea
▪ Euro-enigmak	emaitza aurkitu, data edo zenbakia
▪ Europako Konstituzioari buruzko inkesta	galderak erantzun
▪ Memoria gestorea	abilezia jokoa
▪ Sarrera/irteera memoria gestorea	abilezia jokoa
▪ Backup	abilezia jokoa
▪ Linker	abilezia jokoa
▪ Checksum	abilezia jokoa
▪ Objektuak ordenatzea	abilezia jokoa
▪ Udaberriaren eguneko proba Europako Konstituzio eta hauteskundeei buruz	23 galdera

Euro-scola lehiaketaren nortasuna jolasa izatean datza. Horrek, era ludiko eta ikusgarrian sortutako materiala dakarkigu. Beraz, ikasleentzat erakargarria izateko moduan pentsaturiko produktuaren aurrean gaude.

Sariak:

2004-2005 lehiaketarako sari nagusia EUROSCOLA programan parte hartzea izan da (Estrasburgon, Europako Parlamentuaren gazteentzako simulazioa). Horretarako dirulaguntza ematen zaie aukeratutakoei (6000 eta 8000 euro bitartekoa). Erkidego autonomoek irabazle bana izaten dute.

Lehiaketa egiten den bitartean, lehiaketako babesleek eta laguntzaileek emandako sari gehiago gehitzen dira. Hori guztia lehiaketako web-orriko SARIAK sailean azaltzen da. Horrez gain, INJUVEk 900 euroko bidaia-poltsa bana emanen die talde irabazleei.

Beste estatuetako partaide kopuruaren arabera, Europako Parlamentuko Informazio Zuzendaritza Nagusiak Bruselan sariak ezarriko ditu Europar Batasuneko estatuetako eta hautagai diren estatuetako ikastetxeentzat.

Antolatzaileak:

- Europako Parlamentua
- Europako Batzordearen ordezkariak
- INJUVE
- MECDko Programa Europarretarako Zuzendariordetza
- Erkidego autonomoetako hezkuntza eta gazteriako erakundeak

KONTSUMITZAILE GAZTEA



<http://www.infoconsumo.es/certamen/>

Europako Batzordeak antolatzen duen lehiaketa horretan kontsumoren inguruko urteko gaiari buruzko sormen lana egingo dute hezkuntzako ikasleek eta irakasleek. Derrigorrezko hezkuntzako mailerako. Horretarako 4 eta 30 lagun bitarteko lan-taldeak osatzen dira. Hiru sari mota daude: nazionalak, erkidegokoak, eta europarrak. Lehiaketa antolatzeke arduradunak dira Europako Kontsumitzaileen Elkarteak alde batetik, eta autonomia erkidegoa, bestetik. Ikasleak ikasitakoaren berri emaile izan daitezten nahi dute ekimen honen sortzaileek. Nolabait esateko, ikasleak praktika zuzenaren zabalzaile bihurtzea da lehiaketa honen xedea.

Beste urteko saridunak ikusteko, izena emateko eta abar, honako helbidera jo:



http://youngconsumer.eun.org/eun.org2/eun/es/index_EYCC.cfm?country=6

Harremanetan jartzeko



Kontsumitzaile gaztearen
lehiaketaren arduraduna

Kontsumo Zuzendaritza
Donostia kalea, 1. zk., 01010 Gasteiz
Telefonoa: 945 01 99 24 Faxa: 945
019947
E-mail: A-MtzGuer@ej-gv.es

L-TRAIN



<http://www.l-train.net/>

Europa zabaltzen ari da. Gazteak hizkuntzak ikasten ari dira Europako hiri nagusietatik pasatzen den tren batean. Hala aurkezten dute L-train izeneko lehiaketaren antolatzaileek.

Web-jolas honetan, 16 eta 21 urte bitartekoek parte har dezakete. Parte hartzaileek erakutsi behar dute zenbateraino ezagutzen dituzten Europako hizkuntzak eta kulturak. Horretarako lau aste irauten duen txapelketa honetan, 25 galderari erantzun behar diete astean.

Estatu bakoitzeko bost lehiakiderik onenek L-trena hartuko dute. Bidaiatzen ari direla haien kazetari-trebeziak azalduko dituzte ahalik eta era onenean. Nor da ikerlaririk onena? Nork du ahots egokiena mikrofonoaren aurrean dagoela? Nork du jarrerarik zuzenena kameraren aurrean eta atzean? Nork atera ditu irudi digitalik onenak?

Bost lehiakide horietatik bat besterik ez da iritsiko azken txanpa betetzera. Bidaiari lotuta, lau lagunek osatutako taldeek zenbait ataza bete beharko dituzte. Zein da Pariseko jatetxe batera bezerorik gehien ekar dezakeen taldea? Zein da Ljubljana, Genoa edo Cork-eko biztanleen europar identitateaz txosten onena idatziko duena? Nor da ahalik eta azkarren ikasten duena eta ulertarazten dena?

Horri guztiorri erantzuteko ama hizkuntza ez diren beste bi hizkuntza erabili behar ditu lehiakideak, beste hizkuntzak erabiltzea eta lagun atzerritarren partaidetza sustatzea saritzen dituen sistemari jarraituz.

Gehiago jakiteko (hasieraren data, beste urteko adibideak, erregistratzeko eta abarrerako) goiko helbidera jo.

Harremanetan jartzeko

E-mail: info@-train.net

HIZKUNTZEN EGUN EUROPARRA: Irailaren 26a



Council of Europe

European Day of Languages 2004



**Celebrating linguistic diversity,
plurilingualism, lifelong language
learning**

26 September 2004

<http://www.ecml.at/ed/default.asp?t=start>

Ospakizun hau Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren ekimenari esker sortu zen 2001. urtean. Harrezkero, egun horretan hizkuntzen dibertsitatea eta hizkuntza-ikaskuntza sustatzeko hamaika jarduera antolatzen dira Europako alde guztietan. 2003. urteko deialdian, esaterako, 40 estatutako partaideek 600 jardueratik gora burutu zituzten.

Europako Kontseiluaren esanetan, hizkuntzak goraiatzea dibertsitatea goraiatzea da; besteen hizkuntza erabiltzeak gure jarreraren irekitasuna eta muga linguistiko eta kulturalen ezabapena dakartzala deritzote antolatzaileek.

Esku hartzeko era oso zabala dugu. Antolatzaileek gaiak eta helburuak proposatzen dituzte baina horiek lantzeko moduak zeharo malguak dira, parte hartzaileen lana ahalik eta errazena izan dadin. Horrez gain, jarduerak urteko beste aldi batean gauza daitezke, Hizkuntzen Egun Europarraren ekimen honen ekintza gisa.

Ireki duten atarian (ikus goiko helbidea) informazio guztia eskaintzen da, halaber ospakizun horretarako eslogana bilatzeko lehiaketa eta hizkuntzei buruzko galdeketa (Quiz). Hortxe baitaratzen da L-train izeneko txapelketari buruzko informazioa ere (ikus aurrerago).

Helburuak:

- Europarrak hizkuntzen ikaskuntzak duen garrantziaz ohartaraztea.
- European hitz egiten ditugun hizkuntza guztiei buruzko kontzientziazioa eta estimazioa areagotzea.
- Europako dibertsitateari eustea eta hori sustatzea.

- Bizitzan zeharreko hizkuntza-irakaskuntza bultzatzea, Europa berriaren eskakizunen erantzun gisa eta heziketa pertsonalaren osagarri gisa.

Informaziorako beste gunea:



Harremanetan jartzeko

Espainiako kontaktua
Ms Gisela CONDE MORENCIA
Asesora Técnico Docente
Área de Relaciones Multilaterales
Subdirección General de Cooperación
Internacional
Paseo del Prado 28, 2ª planta
28014 Madrid
Tel: +34 91 506 5596
Fax +34 91 506 5704
e-mail: gisela.conde@educ.mec.es

URTE EUROPARRA

Kontseilu Europarrak eta Europar Batasunak sorturiko ekimen honek UNESCOren babesa ere badu. Urte bakoitzaren webgunean irakasleak aurki ditzake izandakoaren berri eta informazio interesgarriak: dokumentazioa, estekak, baliabideak... Urte horien ospakizunek jarraipena izan dute zenbaitetan, hala nola, irailaren 26ko Hizkuntzen Egunak edota EYPDren ekimenak. Iraunkortasun hori dela medio, webguneek jarraipena izan dute eta bertako edukiak eguneratzen dituzte. Hartara, toki baliagarriak dira bitarteko eta ideiak eskuratzeko.

- ★ **HIZKUNTZEN URTE EUROPARRA (2001)**
The European Year of Languages



<http://www eyl2001.org.uk/>

★ **ELBARRITUEN URTE EUROPARRA (2003)**
European Year of People with Disabilities (EYPD)



<http://www.eyes-2004.info/>

★ **KIROLAREN BIDEZKO HEZKUNTZAREN URTE EUROPARRA (2004)**



<http://www.eyes-2004.info/6972.0.html>

Harremanetan jartzeko

e-mail: asuncion.monge@csd.mec.es